
3. Konpromisoaren itxiera-txostena OGP 2018-2020



Aurkibidea

1/ LAN-PROZESUA

1.1/ 3. konpromiso-taldearekin egindako lana

- 1. saioa – Aurrez aurreko bilera
- 2. saioa – Aurrez prestatutako lana, interneteko tresnen bidez azaldua
- 3. saioa – Internet bidezko egiaztapena
- 4. saioa – Bideokonferentzia bidezko itxiera

1.2/ Esperimentaziorako eta transferentziarako oinarrien sorrera

- Koordinazio Taldearen 1. saioa – Aurrez aurreko bilera
- Koordinazio Taldearen ondorengo saioak – Internet bidezko bilera

1.3/ Proiektu pilotuen jarraipena

- Proiektu pilotuen 1. mahaia - Aurrez aurreko bilera
- Proiektu pilotuen 2. mahaia - Internet bidezko bilera

1.4/ Elkarlan sarien eta 2. eta 3. konpromisoen gaineko foro irekia

- Foro irekiaren egitura orokorra
- Komunikazioa
- 3. konpromisoaren saioa


2/ HIRUGARREN KONPROMISOAREN EBALUAZIO PARTAIDEA

3/ ILAB-A ABIARAZTEKO EMAN BEHARREKO URRATSAK

LAN-PROZESUA

Konpromisoaren lan-prozesuak helburu nagusi hau izan du 2019ko urriaren eta 2020ko uztailaren artean: 4 proiektu piloturen garapenaren jarraipena egitea eta, horretarako, berariaz neurtzea eta baloratzea praktika onak nola eta zein neurritan antzeman eta transferitu diren. Proiektu pilotuen garapena ikuskatzeaz gain, kontuan hartuta I-lab proiektua bera lehen fasearen ostean zein garapen-mailatan zegoen, “makro” eskalako pilotatze bat ere egin da. Martxan jarritako prozesuak, funtzionamendua eta harremanak frogatu eta behatu dira, zenbait agenteren lan bateratua tarteko.

Prozesuaren hasierako planteamendua zenbait aldiz aldatu da, alde batetik, proiektuak izan dituen benetako beharrezanez erantzuteko, eta, bestetik, aurreikusitako ekintzak COVID-19aren pandemiak eragin duen osasun-larrialdiko egoerara egokitzeko. Ondorioz, 3. konpromisoaren 2. fasean jarraitutako benetako lan-eskema azaltzen da jarraian.



Hona hemen lan-prozesuaren ekintzarik esanguratsuenak.

3. Konpromiso- Taldearekin egindako lana

3. konpromisoko idazkaritza teknikoaren bigarren fase honetan zehar, 4 une edo lan-espazio antolatu ditugu 3. konpromiso-taldearekin (aurrerantzean, 3KT): aurrez aurreko saio bat; lan kolektiborako espazio bat, interneteko tresnen bidez koordinatua; baliozkotzeko unea; eta bideokonferentzia bidezko saioa.

Jarraian, ekintzetako bakoitzaren helburuak, planifikazioa eta emaitzak azaltzen dira.

3KTaren 1. saioa – Aurrez aurreko bilera

Eguna eta lekua: 2020ko otsailaren 5a, Etorkizuna Eraikiz (Donostia)

Xedea: Ilab-en gobernantza-ereduaren bigarren bertsioa aurkeztea; bigarren lan-fase horren lan-plana ezagutarazi eta baloratzea; eta 4 proiektu pilotuetarako lehen hurbilketa egitea.

Gai-zerrenda:

- Gobernantza-ereduaren aurkezpena
- 2020ko lan-planaren aurkezpena
- Proiektu pilotuen aurkezpena
- Proiektu pilotuei buruzko hausnarketa

Bileraren akta, gai-zerrenda zehatza jasotzen duena eta sortutako edukiak biltzen dituena, [hemen kontsultatu daiteke](#).



3KTaren 2. saioa – Aurrez prestatutako lana, interneteko tresnen bidez bideratua

Eguna eta lekua: 2020ko apirilaren 22tik maiatzaren 4ra, internet bidez.

Xedea: Proiektu pilotuen transferentzia-produktuei buruz hausnartzea eta haien formalizazio-prozesuan lagungarri izan daitezkeen ekarpenak egitea.

Lan-plana:

- TIPIk [agiri bat egin du, pilotu bakoitzaren egoerari buruzko informazioa jasotzeko](#). Une horretara arte transferentzien gainean zehaztu dena ere bildu da bertan.
- 3KTak agiria irakurri du, eta ekarpenak egin ditu [Excel partekatu baten bidez](#). Zergatik Excel partekatua? Beste pertsona batzuek egin dituzten iruzkinak irakurri ahal izateko eta, hala nahi duenarentzat, ñabardurak egin edo ideiak gehitu ahal izateko.
- Jasotako ekarpenak proiektu pilotuetara helarazi ditu TIPIk proiektu pilotuen 2. mahaian.

PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS			
APORTACIONES DEL GC3			
En este apartado nos gustaría recoger aportaciones encaminadas a enriquecer tanto los contenidos, como los canales y los públicos de las transferencias.			
Será importante apuntar si, por ejemplo, creemos que no se ha tenido en cuenta cierta información que consideramos interesante compartir; analizar la adecuación de los canales respecto al contenido que se transmite; o valorar la idoneidad de los formatos y canales de transmisión en relación a los públicos a los que se dirigen. Por otra parte, también será interesante apuntar si creemos que hay que poner especial atención sobre algún elemento de la comunicación como el idioma, el registro del lenguaje, la comunicación visual etc.			
Para agrupar vuestras aportaciones, hemos preparado esta tabla que tenéis debajo. Para rellenarla, seguiremos estas mínimas pautas:			
> Pondremos nuestro nombre en la primera columna para identificarnos.			
> Rellenaremos una fila por cada aspecto que queramos comentar . Es decir, si queremos comentar 2 cuestiones diferentes, rellenaremos 2 filas de la tabla.			
> La columna de la derecha la utilizaremos para hacer comentarios o matices sobre las aportaciones que haya hecho otra persona . Cuando la utilicemos, pondremos nuestro nombre para saber quién es la persona autora del comentario.			
Nombre	Aspecto sobre el que se opina	Opinión, comentario, duda, aportación	Matices a los comentarios de otras personas
Arrate	En una segunda fase, fuera del alcance del presente piloto, se sería interesante adaptar el trabajo ya realizado (...)	Serían actividades muy interesantes; por un lado, se aumentaría el valor del trabajo realizado y, por otro, se fortalecería la red de entidades y personas que han trabajado en el piloto.	Nombre: Comentario:
Diana	documento	Sería interesante que tenga un punto de HowTo... cómo... que ha funcionado y que no ha funcionado, por que y el contexto. Ni todas las personas somos iguales, ni todos los contextos son iguales...	Nombre: Comentario:
Beatriz	Enlace a experiencias y buenas prácticas	Aunque prevista para una 2ª fase, quizá se podría incorporar parcialmente en el documento actual y/o sesión de presentación por su carácter "didáctico"	Nombre: Comentario:
			Nombre: Comentario:
			Nombre: Comentario:
			Nombre: Comentario:


3KTaren 3. saioa – Internet bidezko egiaztapena

Eguna eta lekua: 2020ko ekainaren 11tik 19ra, internet bidez.

Xedea: Ekarpenak edo iradokizunak jasotzea azken txosten hauen gainean: [“Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-aren kontzeptualizazioa eta gobernantza-eredua Euskadirako”](#) eta [“Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak”](#).


Lan-plana:

- TIPIk agiri horien azken bertsioak bidali ditu 3KTra.
- 3KTaren kideek mezu elektroniko bidez bidali dituzte beren ekarpenak, iradokizunak edo oniritziak.



Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak

Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-aren kontzeptualizazioa eta gobernantza-eredua Euskadirako



PARTAIDETZAN BERRIKUNTZAK SARTU!

esperimentaziorako eta transferentziarako oinarriak



3KTaren 4. saioa – Bideokonferentzia bidezko bilera

Eguna eta lekua: 2020ko uztailaren 7a, internet bidez.

Xedea: 3. konpromisoaren ibilbideari buruzko iritzia eta esperientzia partekatzea, 3. konpromisoan egin dugun lana laburbiltzea, eta foro irekiari buruz aritzea.

Gai-zerrenda:

- Gobernantza-ereduaren aurkezpena
- 2020ko lan-planaren aurkezpena
- Proiektu pilotuen aurkezpena
- Proiektu pilotuei buruzko hausnarketa

Bileraren akta, gai-zerrenda zehatza jasotzen duena eta sortutako edukiak biltzen dituen, [hemen kontsultatu daiteke](#).



Esperimentaziorako eta transferentziarako oinarriak sortzea

Ilab bera pilotatzean, aurkikuntza nagusietako bat izan da lanerako estilo edo irizpide komun batzuk sortzeko beharizana ikustea, sareko etorkizuneko proiektuekin lan egiteko. Horrenbestez, lan-bilera bat egin zen Koordinazio Taldearekin, oinarrizko lan-metodo komun bat sortzeko Ilab-en proiektu pilotuetarako.

Koordinazio Taldearen 1. lan-saioa


Eguna eta lekua: 2020ko martxoaren 5a, Eusko Jaurilaritza (Bilbo)

Xedea: Ilab-en proiektu pilotuetarako oinarrizko lan-metodo komuna sortzea.

Gai-zerrenda:

- Ideia edo elementu gakoak brainstorming-a
- Taldetan bildu eta denborak ezartzea
- Prototipoa proiektu desberdinekin egiaztatzea

Bileraren akta, gai-zerrenda zehatza jasotzen duena eta sortutako edukiak biltzen dituena, [hemen kontsultatu daiteke](#).




Koordinazio Taldearekin egindako ondorengo lan-saioak

Lehen bileran adostutakoa kontuan hartuta, lan-bilera batzuk egin dira, internet bidez, koordinazio-taldearekin, agiriaren edukiak adosteko, idazketaren jarraipena egiteko, eta dauden adostasun eta desadostasunak sakonago aztertzeke.

Lan horren emaitza 3. konpromiso-taldearekin egiaztatu eta baliozkotu da, eta honako agiri honetan jasotzen da: "[Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak.](#)"



Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak



PARTAIDETZAN BERRIKUNTZAK SARTU!

esperimentaziorako eta transferentziarako oinarriak

Proiektu pilotuen jarraipena

3. konpromisoaren idazkaritza teknikoaren bigarren fase honetan zehar, Teklak enpresarekin egin da lan, proiektu pilotuen jarraipena gauzatzeko. TIPI arduratu da 4 pilotuen, konpromiso-taldearen eta talde eragilearen artean komunikazioa eta lankidetzaz bermatzeaz arduratu da; Teklak enpresa, bere aldetik, lanean aritu da proiektu horietako bakoitzaren transferentzia-prozesuak eta produktuak elkarlanean diseinatu eta aholkularitza emateko.

Ondorioz, proiektu pilotuen bi mahai antolatu ditu TIPIk. Mahai horien helburuak izan dira: proiektuen arteko topalekua sortzea, horietako bakoitzaren garapenaren jarraipena egitea, eta ikaskuntzei eta erronkei buruzko hausnarketa kolektiboki egitea.

Proiektu pilotuen 1. Mahaia

Eguna eta lekua: 2020-02-19, La Bolsa eraikina (Bilbo)

Xedea: Ilab-aren proiektu pilotuetarako topaleku bat sortzea, horietako bakoitzari buruzko hausnarketa kolektiboa egiteko.

Proiektuen jarraipena:

Proiektu bakoitza osatzen duten pertsonak, taldeka, beren proiektu pilotuari buruzko hausnarketa egin dute, eta hauek identifikatzen saiatu dira: zalantzak, arriskuak, aukerak, doikuntzak, beharrak eta ikaskuntzak. Era berean, proiektu bakoitzari 3. konpromiso-taldeak alde aurretik egindako ekarpenak eman zaizkio.

Proiektu pilotu bakoitzari buruzko informazioa [akta batean jaso da \(hemen eskuragarri\)](#).



Proiektu pilotuen 2. Mahaia

Eguna eta lekua: 2020-05-12, internet bidez.

Xedea: Pilotuen arteko topalekua sortzea eta transferentzia-produktuen nahiz - prozesuen gainean elkarrekin lan egitea.

Proiektuen jarraipena:

3. konpromiso-taldeak proiektuen transferentziei buruz egindako ekarpenak partekatu dira pilotuekin. Ondoren, proiektuetako bakoitza zuzentzen duten agenteek transferentzia-produktuen gaineko zalantzei eta beharrizaneiei buruz hitz egiten dute.

Proiektu pilotu bakoitzari buruzko informazioa [akta batean jaso da \(hemen eskuragarri\).](#)



2. eta 3. konpromisoen Foro Irekia

Lan hau egin dugu Idazkaritza tekniko gisa Ilab-en bigarren fase honetako foro irekian:


- Foro ireki bateratuaren egitura orokorra asmatzea 2. eta 3. konpromisoetarako eta Elkarlan sarietarako
- 3. konpromisoaren foro irekiaren saioa diseinatu eta prestatzea
- Komunikazio-plan bat pentsatu eta betearaztea, eta behar diren komunikazio-euskarriak diseinatu eta egitea (irudiak, gif-ak, banner-ak, mezu elektronikoak, tweet-ak...). Teklak enpresarekin elkarlanean gauzatu da zeregin hori.

Foro irekiaren egitura orokorra

COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-alertaren ondorioz, foroaren planteamendua errotik aldatu da, eta aurrez aurrekoak ez diren formatuetara egokitu da.

Koordinazio Taldearekin batera (3. konpromisoa gidatzen duten erakundeek osatzen baitute), foroa egituratzeko bi aukera posible aztertu eta balioetsi dira, eta horietako lehena aukeratu da. Horren arabera, komunikazio-kanpaina baten bidez egituratu da foroa, bertako 3 ekitaldiei batasuna emanez, eta bilera bakoitza bideo-dei kolektiboen bidez antolatu da.


Opción 1



Komunikazioa

Komunikazioa eta hedapena esanguratsuak izan dira foro ireki honetan. Izan ere, foroa internet bidez egitea erronka handia izan da euskarri aldetik, eta, gainera, ekitaldia uztailaren amaieran egin da, hau da, lan-esparruko edozein deialdirako konplikatu den datan.

Teklak eta TIPIren artean, komunikazio-kanpaina bat diseinatu da, honako ekintza eta epe hauek tartean:



Jarraian, foro irekia hedatzeko diseinatutako komunikazio-euskarrietako batzuk jaso dira:

Banner laburpena

Foro Irekia online. 2 eta 3 Konpromisoak

Partaidetzako berrikuntza-esperientziak
Esperimentatzea eta partekatzea arlo publikoa eta komuna

Parte-hartzean berrikuntzarako llab-a
Parte-hartzearen berrikuntzaz elkar-lagundu eta ikasteko komunitatea.

Open data eta zerbitzuak datu irekiekin
Administrazioek bat egiten dute beren datuak zabaldu, zerbitzu berriak eskaini eta gizartearen erabilera sustatzeko.

Open Government Partnership Euskadi

uztaila / julio
11:00

Foro Abierto online. Compromisos 2 y 3

Experiencias de innovación en participación
Experimentar y compartir para contribuir a la mejora de lo público

Ilab de innovación en participación
Una comunidad de aprendizaje y apoyo mutuo para innovar en participación.

Open data y servicios con datos abiertos
Las administraciones se unen para abrir sus datos, ofrecer nuevos servicios y fomentar su uso por la sociedad.



Foro Irekia online. 2 eta 3 Konpromisoak

uztaila

21

11:00 - 12:00

Partaidetzako berrikuntza-esperientziak

Esperimentatzea eta partekatzea arlo publikoa eta komuna hobetzen laguntzeko.

22

11:00 - 12:30

Parte-hartzearen berrikuntzarako Ilab-a

Parte-hartzearen berrikuntzan elkar-lagundu eta ikasteko komunitatea.

23

11:00 - 12:30

Open data eta zerbitzuak datu irekiekin

Administrazioek bat egiten dute beren datuak zabaldu, zerbitzu berriak eskaini eta gizartearen erabilera sustatzeko.

Tweet-ak

Pegip 2020 @Pegip_eus · 15 jul.

Ilab-a ikertu, probatu, ikasi eta partaidetza egiteko modu berriak eraikitzeko laborategia da.

#OGPEuskadi Foro Irekiaren uztailaren 22ko saioan, Ilab proiektua aurkeztuko dugu eta bere ahalmen eraldatzaileari buruz hitz egingo dugu.

Eman izena! labur.eus/KiN3k

Pegip 2020 @Pegip_eus · 14 jul.

Parte-hartzearen berritzea osasuna da, pentsatzea eta birpentsatzea, pertsonalizatzea, begiradak bateratzea, ingurumen- eta bizi-jasangarritasuna, komunitatea ehuntzea.

Horri guztiari buruz hitz egingo dugu #OGPEuskadi Foro Irekiaren uztailaren 21eko saioan.

Eman izena! labur.eus/KiN3k

Pegip 2020 @Pegip_eus · 13 jul.

#OGPEuskadi-k Foro Irekiaren astea ospatuko du uztailaren 21ean, 22an eta 23an. Iraupen laburreko online saioak, irekian lan egiteari eta herritarren parte-hartzearen berritzeari buruzko ikaskuntzak eta esperientziak partekatzeko.

Izen ematea zabalik! labur.eus/KiN3k

3. Konpromisoaren Foro Irekia

Eguna eta lekua: 2020ko uztailaren 22a, internet bidez.

Xedea: Ilab-en kontzeptualizazioa, gobernantza-eredua eta proiektuen araberako lan-funtzionamendua ezagutzera ematea, eta interesdunek izan ditzaketan zalantzak ebaztea.

Gai-zerrenda:

- Agurra eta testuinguru orokorra
- Ongietorri instituzionala eta saioaren aurkezpena
- Ilab proiektuaren, bere gobernantza-ereduaren eta sortutako ezagutzak esperimentatu eta transferitzeko prozesuen aurkezpena
- Galderen txanda
- Eskerrak eta itxiera

Saioaren bideo osoa [hemen kontsultatu daiteke](#).



.....

3. KONPROMISOAREN EBALUAZIO PARTEKATUA

OGP 2018-2020 planean zehar 3. konpromisoan egindako lana ixteaz gain, konpromisoaren ibilbidea laburbildu eta ebaluatu da.

Nahiz eta hasiera batean 3. konpromisoaren ebaluazio osoa egiteaz idazkaritza teknikoa arduratu behar zen, azkenean ebaluazioan aditua den enpresa bat kontratatu da, 3. konpromisoa ebaluatzeaz gain, “thinking Fadura” pilotuan laguntza eta aholkularitza eman ditzan. Horrenbestez, Adimen eta TIPI elkarlanean eta koordinazioan aritu dira, 3. Konpromisoa zenbait metodologia eta teknikaren arabera ebaluatzeko.

Adimen-ek galdetegi bat bidali die 3. konpromisoko agente guztiei, eta elkarrizketa sakonak egin dizkie agente horietako batzuei. Taldeko kideei bi urte hauetako lanak zein ekarpen egin dien hausnartu du, kolektiboki, TIPIk.

Hona hemen jasotako hausnarketa eta iritziak:

Lan kolektiboaren balioa

Erakundeek, hasieran, proiektu horren gainera ideia batzuk aurreikusi zituzten. Hala ere, taldean lan egiteari eta kezkek eta zalantzak partekatzeari esker, lana aberastu egin da. Ibilbide luzea da eta, oztopoak egon diren arren, kudeatu egin dira. Oztopo gehiago egongo da oraindik, seguru. Horregatik, hain zuzen ere, sare hau elikatzen jarraitu behar dugu, oztopo bakoitzari aurre egiteko gai izan gaitzen.

Galdera berriak egitea

Proiektua galdera berritzaileak bilatzeko aukera bat da, erantzunak aurkitzeko tokia baino gehiago. Ilab-a da sortu dugun eta hainbeste balioesten dugun hori, baina, era berean, konpromiso garrantzitsuak eskatzen ditu. Konpromisoek tentsioa sortzen dute, baina prozesuaren parte dela ulertu behar da.

Berrikuntza, etengabeko erronka

Berrikuntza da Ilab-ek hasieratik lortu nahi izan duen helburua. Urrats interesgarriak egin dira, besteak beste proiektuak partekatuz beste erakunde edo lurralde batzuekin. Hala ere, oraindik bide luzea dago egiteke.

Pilotuak, berrikuntzarako gako

Pilotuak, elementu zehatz eta ukigarriak direnez gero, gakoak dira lan honetarako, berrikuntza horizonte bat baino ez dela ulertuta, hau da, bide bat. Interesgarria da urratsak ildo horretatik egiten jarraitzea, proba-hutsegitea baliatzea. Bidea egin behar da, malgutasunez, hori guztia prozesu bat dela eta egiteke asko dagoela kontuan hartuta.

Aniztasunaren eta desadostasunaren erronka

Ilab-en azken produktuak benetan partekatutako kontakizun bati erantzuten dion edo sortu den kontakizuna bere egiten duen, horra hor zalantza. Lehen bileretan gizarte-agente gehiago, aniztasun gehiago eta erakunde gutxiago zeuden. Egindako lana oso baliotsua da, baina, ziur aski, badaude pertsona eta agente batzuk lan hori bere sentitzen ez dutenak. Etorkizunerako erronka da hori, kudeatu beharreko gai bat, batez ere erakundeetatik harago doan eredu bat sortzeari buruz ari garenean.

Instituzionalitatea eta lankidetzak

Erakundeen arteko lidergoaren emaitza da Ilab-a, eta erronkatzat du lidergo horrek ez ditzala desaktibatu proiektu ireki eta lankide bati zentzua ematen dioten beste alderdi batzuk.

Inklusibitatea eta irisgarritasuna

Beste erronka bat ere badago: mekanismoak identifikatzea, proiektu gehiago sar dadin bide honetara, inor baztertu gabe, urrundu diren gizarte-agenteak izan nahiz tamaina txikiagoko beste erakunde batzuk izan. Etengabeko galderatzat hartu behar da hau: zer egin behar da proiektu hau ahalik eta demokratikoena eta irisgarriena izan dadin?



.....

ILAB-A ABIARAZTEKO EMAN BEHARREKO URRATSAK

Ilab-a sortzeko prozesua gidatu duten erakundeek hitzetan, <<proiektu honek jarraitutasuna edukiko du, baina lan-sare egonkorragoa eta lankideagoa osatu behar da>>. OGP Euskadin parte hartzen duten erakunde ia guztiek parte hartu dute Ilab-en, eta ekarpenak jaso dira azken unera arte. Ondorioz, jarraitutasun-oinarri sendoa finkatu da, horren gainean aktibatzeke Ilab-a.


OGP Euskadiren bigarren urte honetan Ilab-a dagoeneko abiarazita dagoela esan genezake. 2019-2020 ikasturtean, Ilab-aren lehen 4 proiektuak aktibatu dira, eta lan-esperientzia bateratua gidatu da. Ikaskuntzak atera dira erakunde desberdinen arteko elkarlana hobetzeko, eta zenbait jarraibide adostu dira (irizpideak eta prozedurak), Ilab-aren etorkizuneko proiektuak hautatzeko.

Ondorioz, Ilab-ean lanean jarraitzeko eta partaidetzako berrikuntzan sakontzeko proiektuak aktibatzen jarraitzeko prozesuak honako 2 agiri hauetan jasotzen dira:

- [Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak](#)
- [Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-aren kontzeptualizazioa eta gobernantza-eredua Euskadirako](#)



Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak



PARTAIDETZAN BERRIKUNTZAK SARTU!

esperimentaziorako eta transferentziarako oinarriak



Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-aren kontzeptualizazioa eta gobernantza-eredua Euskadirako



